

Suyapa Martínez

Honduraseko Emakumearen
rakaskuntza entroko oordinatzaile
nagusia - CEMH.



Hondurasen, emakumeen aurkako indarkeria izugarria da, urte asko daramatzagu feminizidioen aurka borrokan. Ez bakarrik gure herrialdean, baita eskualde mailan ere, emakumeenganako indarkeriaren aurkako Ertamerikako Sare feministaren eskutik. 2002. urtean, 111 emakume erailak izan ziren. Une horretan ohartu ginen zehatzago ikertzen eta antolatzen hasi behar ginela, inpunitate oso horri aurre nola egin aztertu behar genuen.

Estatu kolpea baino lehen, Hondurasen, feminizidioen urteko batez bestekoa 220 ingurukoa zen eta kolpeaz geroztik kopuru hori 485era igo da. Hamar urtetan, 4800 emakume baino gehiago erail dituzte herrialde honetan. Epaitzen diren kasuetatik, soilik %31 lortzen dute aurrera ateratzea. 2017an 389 emakume izan ziren eta 2018an 380. Bi urte hauetan, 11 kasu soilik kondenatu zituzten feminizidiotzat hartuta.

Herrialde honetan, emakumeen aurkako krimenen %96 baino gehiago zigorgabetasun osoan daude. Kasu aipagarrien artean, Margarita Murillo nekazariaren hilketa dago, duela 6 urte baino gehiago eman zena, eta baita Berta Caceresena ere. Azken honen kasuan, kasuak aurrera egitea lortu du baina Margarita Murillorena inpunitate osoan



jarraitzen du oraindik ere. 2016. urteko kasu batean, Gracias a Dios herrixkako neskatxa bat bortxatu eta akatu egin zuten. Espediente hau desagertu egin da. Jakin dugunez, txostena Ikerketa Kriminalako Agentzia Teknikora bidali zen, baina bertan ez zen inoiz jaso. Polizia bat dago hilketan murgilduta eta, beraz, erraza da kontuaren nondik-norakoak antzematea. Poliziak edo boteredunak tartean daudenean, espediente asko desagertu edo estali egiten dira.

Beste kasu batean, Santa María de la Paz izeneko herrian, gizonezko batek bere bikotea hil zuen. Bortxatu eta gero, berarekin ezkontzera behartua izan eta, azkenean, bere semearen aurrean erail zuen. Gizonaren familiak abokatu bat ordaindu eta aske utzi zuten. Kasu hau inpunitate horren eredu argia dugu, gizona libre geratu zen eta ez zuten kondenatu, berak ez zuela ezer egin argudiatuz. Kasua nazioarteko epaitegietara eramatea da orain dugun aukera bakarra.

Duela gutxi, 6 urteko neskato bat bortxatu zuten hegoaldean, San Lorenzo eskualdean. Ustezko hiltzailea heldu zuten, baina nolabaiteko bortxatzaile taldeak direla esan dezakegu eta, beraz, ez dituzte inoiz behar bezala harrapatzen. La Ceibako neska bat, adibidez, bortxatua izan zen baita, baina ordaindu egin zuten erruduna herrialdetik atera zedin eta desagertu egin zen, inoiz hemen bizi izan ez balitz bezala.

Herrialde hau txirotasunaren menpean dago, %68 baino gehiagora ere heltzen dena, eta etxeetako buruzagitzen herena emakumezkoen eskuetan dago. Auzo guztiak marak eta talde biolentoek menperatzen dituzte, non neskatoak zaintzen dituzten pandilero hauen bikote edo bandera gisa aritzeko (poliziaren salatariak, alegia) edota droga saltzeko. Tresna hutsak bilakatzen dira. Euren kontrolpeko eremu horietan manipulatzeko dituzte, eta jada balio gehiagorik ez dizkietenean ateratzen edo mara osoko kideek bortxatu dituztenean, akatu egiten dituzte. Horregatik sortu dira azken egunetan ikusten ari garen karabana pila horiek iparralderako bidean. Marek mehatxatu dituzten neskak dira orokorrean. Amek seme-alabak babestu nahi dituzte eta horretarako, nahiz eta bortxaketa, bahiketa edota heriotzaren arrisku osoari aurre egin behar izana, migrazio-bide hauetan sartzera arriskatzeko dira. Karabana hauetan bizitza arriskatzea nahiago dute hemen geratzea baino.



Gure lana sustatzaileak hesitzea da, baina marek mehatxatu egiten dituzte hauek eta migratzaileen karabanetan sartzen dira ihesean ere. Behin muga daudenean, guri deitzen digute laguntza eske, Mexikon eta Guatemalan ezagutzen ditugun Gobernu Kanpoko Erakundeekin kontaktuan jartzeko. Egoera asko larritzen hasia da eta gero eta gehiago estutzen hasi dira, Mexiko migrazio-kontrol gehiago egiten ari baita maila guztietan eta Guatemala gauza berarekin ere hasia da jada. Guk diogu gure barnean mugituko garen herrialdea bilakatuko garela, baina arazoa da ezta hau ere ezingo dugula egin tamalez.

Herri honetan, emakumeon bizitzak ez du ezer balio. Feminizidioa, bortxaketa edota familia barruko indarkeria bezalako emakumeen aurkako delituen zigorrak leundu edo desagerrarazteko helburuz, zigor kodearen erreforma bultzatu dute. Orain, ezin izango gara nahi bezala manifestatu, adierazpen askatasunaren aurkako ekintza zuzena izan da. Irain eta kalumnien kasuan, gero eta zorrotzago jarri da egoera zigor kode berriari esker. Ni auzipetua izan naiz sarritan feminizidio kasuetan behin eta berriz justizia eskatu izanagatik, batez ere Berta Caceresen kasuan.

Tamalez, emakumeok gure burua babesteko formak aurkitu behar ditugu egungo testuinguruari aurre egiteko. Beti elkarrekin ibili behar gara, zenbait lekuetatik pasatu gabe, etxean isilpean ezkuturik eta sarritan, bertan giltzapetuta egon arren, atea ireki, sartu eta hil egiten gaituzte, senarrak berak askotan.

Aurreiritzi ugari dago emakumeen janzkerarekin edota gauez irtetzen diren neskekin. Hilketa baten kasuan, honakoak aipatzen dira beti: “maretan aritzen zen”, “narkotrafikoaren munduan sartuta zegoen”, “minigona eta tatuaje horiekin probokatzen zihoan” eta holako hainbat adibide gehiago. Guzti hau kontuan hartuta, eta krimen eszenaren manipulazioa ahaztu gabe noski, erabat ezinezkoa suertatzen da zigorgabetasun edo inpunitate arazoak behin betiko gainditu dituen herriaz aritzea. Emakumeak kaleetatik askatasun osoz ibiltzea ahalbidetzea ez da posible oraindik ere. Erakundeko kideok lan benetan gatz burutu behar dugu politika publikoak eta legedia aldarazten saiatzeko, begirale lana ere egin behar dugu beti feminizidio eta sexu indarkeria krimenak inpunitate osoan geratu ez daitezen.



Beraz, zigorgabetasun giro horri aurre egiten ari gara. Elkartasun sareak, indarkeriaren aurkako emakume sareak eta emakumeenganako indarkeriaren kontrako erakunde arteko batzordeak eratzen ditugu. Emakumeei haien eskubideei buruz irakasten diegu, haiek ere salaketak bideratu ditzaten. Indarkeria kasuetan laguntzen ditugu, autolaguntza taldeak erabiltzen ditugu komunitateetan, sexu indarkeriari zein etxeko indarkeriari aurre egin eta gero, egoera gogorretan dauden emakumeak laguntzen ditugu. Tamalez, guztiek ez dituzte salaketak bideratzen baina, gaitz erdi, taldeak arazoari buruz hitz egiteko ere balio izan dute eta ondoren, oro har, salaketa jartzea erabakitzen dute.

Ikasle eskubideen aldeko defendatzailea nintzen hasiera batean. Gero, 1990. urtean erakunde honetan sartu nintzen eta honen baitan gure buruak feministatzat hartzen hasi genituen. Mugimendu sozialek borroka ezberdinak eramaten ari zirela ohartu ginen, baina baita gure aldeko borroka ere bideratzen ari zela mugimenduaren baitan. Ikasle mugimendu horren barnean nengoela, bertoko kideek askotan nire eskubideak urratu zituzten. Mugimendu sozialen baitan gizonezkoek, gure kideak izanda, eragindako jazarpen sexuala edota biolentzia ere pairatu genuen. Haiek izan beharko lirateke gure lehen zutabea baina, hala ere, bertan ere patriarkatua dugu bizirik. Horregatik, sistema neoliberal huts honen aurka bideratua izan beharko da gure borroka, patriarkatu eredu hutsa baita. Baina, nola lortu dezakegu gure anai-arrebek hain barneratua duten patriarkatu hori behingoz bazter dezaten? Hortaz, gure borroka, sistemaren kontra bideratua izango da beti.

Neoliberalismoa Latinoamerika osoan dezente aurrera egin du, Ertamerikan batez ere. Enpresa estraktibista handiek eroskerien bitartez funtzionarioak erosten dituzte, alegia. Ustelkeria gure eguneroko biziaren parte bilakatu da jada. Hau, beti bezala, herriek pairatzen dute euren lurraldeetatik kanporatuak diren heinean. Emakumeek, batez ere, zailtasun handiak izaten dituzte borroka lehen lerrora joaten direlako, azkenean kriminalizatuak izateko. Guzti hau, gainera, euren sorbalden gainean etxeko lanak aurrera ateratzeko beharrari aurre eginez.

Sistema honek gero eta gehiago estutzen ditu emakumeen bizitzak. Etxegabetzeak, migrazioak, indarkeriak, segurtasun eza, lan gainkarga... guzti hau eta gehiagori aurre egin behar diogu egunerokotasunean. Guk geuk mugitzen ditugu komunitateak; gur erasotzen



bagaituzte komunitatea bertan behera geldiarazten ari dira. Emakumeak gara bizia ematen ari garenak, horregatik erasotzen gaituzte gu.

Gure buruak zaintzea, auto-zaintza alegia, oso zaila bilakatzen da uneoro, nekez lortzen dugu behar bezala deskonektatzea. COFADE edo “Sé Libre” bezalako erakundeekin kideak behar bezala babesteko gizarte funts bat sortzea lortu dugu, hainbat eta hainbat defendatzaile gerturatzen dira bertara laguntza eske. Ailegatzen diren kasuak aztertu eta erantzuna eta babesa eskaintzen saiatzen gara ahal dugun neurrian. Hala ere, oso lan gogorra suertatzen zait maiz, nahiz eta horretarako prestatu egon, barneak erabat mugitzen dizkiguten egoerak baitira. Sarritan, gure buruak beste tokietara eramaten saiatu behar gara, benetan egoera jasanezinak direlako. Guk, gizaki gisa, hainbat gorputzez osatuta gaude eta hauetako bat nekatzean, ondorengo bat aurkezten da, eta ondoren beste bat... baina zenbait kasutan gorputz horiek denak erabat ahulduta daude. Egoera horretara heltzean, dena dagoen tokian utzi eta hausnartzeko unea agertzen da orduan.

Emakumentzat benetan justu eta bidezkoa den mundu bat uztea da gure nahia, haiek kaleetatik askatasun osoz ibili eta defendatzaileak jazarriak izan ez daitezen. Defendatzaileak erasotzea emakumeak kalegorrian uztea da. Pobreziarik gabeko mundu bat, feminizidioen pobrezia alegia, non emakumeak aukera berberak izan ditzagun, baina sistema neoliberal honetik ahalik eta gehien urrunduz. Berez, gure desira beste sistema bat litzateke, benetako justizia soziala ezartzeko gai den sistema berri bat.